



Espediente kodea: 2014OLHA0007

HAUTAKETA-PROZESUA: 2 LANGILE

UROLA KOSTAKO EREMUKO ENPRESETAN ENERGIA AURREZTEKO LEHIAKORTASUN PROGRAMA

Sarrera, hautaketa-prozesuaz

Deialdi honen helburua da UROLA KOSTAKO EREMUKO ENPRESETAN ENERGIA AURREZTEKO LEHIAKORTASUN PROGRAMA garatzeko bitarteko bi funtzionario hautatu eta izendatzea.

Deialdi honen bidez betetzen diren lanpostuak finantzatu dira Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2014ko irailaren 23ko 29/2014 Foru Dekretuaren bidez (energia sektorean Gipuzkoako enpresa txiki eta ertainen partaidetzan eragina izango duen Gipuzkoako eskualdeko garapen agentzietarako finantza laguntzaren programaren bidez).

Hautaketa-prozesu honen haritik hautatzen diren pertsonak bitarteko funtzionario izendatuko ditu Urola Kostako Udal Elkarteak, betiere aipatutako 2014ko irailaren 23ko 29/2014 Foru Dekretuko diru-laguntza jasotzen badu. Udal Elkarteak diru-laguntza hori eskuratzen ez badu, hautaketa-prozesua bertan behera geratuko da. Halaber, ez dira izendapenak egingo diru-laguntzaren ebazpena jaso ezean.

Bi lanpostu horiek, bestalde, Urola Kostako Udal Elkartearen “Lanera Kontratazioak” izeneko programan txertatzen dira. Programaren helburua da, lana lortzeko herritarrek dituzten aukerak areagotzea eta, horretarako, kualifikazio maila baxu zein altuko langabeak kontratatzea. Horrenbestez, deialdi honen bidez, batetik, eskualdeko langabeak kontratatuko dira, gizarte intereseko lanak egiteko (bestela esan, enpresen lehiakortasuna areagotzeko), eta, bestetik, langabe horiek lanbide jakin bateko esperientzia eskuratuko dute (energia eraginkortasunaren arloan, hain juxtu), laneratzeko aukerak hobetzeko.

Urola Kostako Udal Elkartearen lehiakortasun-plana

Udal Elkartearen azken urteotako helburu nagusienetako bat da eskualdearen eta eskualdeko enpresen lehiakortasuna hobetzea. Horretarako, hainbat egitasmo bideratu ditu orain arte eta ditu esku artean, besteak beste: lehiakortasun diagnostikoak egin eta ekintza-planak garatzeko laguntza; balio kate bereko enpresen lankidetzak sustatzeko egitasmo zehatzak (egur eta altzarien sektorean, arte grafikoan sektorean, industria sektoreko enpresen lankidetzagunea, soldadura sektorea...). Egitasmo horien azken helburua da enpresen lehiakortasuna hobetzea, negozioak dibertsifikatzeko edo eta nazioartekotzeko.

Energia kontsumoa eta eraginkortasun energetikoa lehiakortasun faktore garrantzitsua da eskualdeko enpresa askorentzat, ingurumen iraunkortasunaren printzipioekin bat etortzeaz gain, eta ezinbesteko dute gai horri aurre egitea.

Hori dela eta, Udal Elkarteak UROLA KOSTAKO EREMUKO ENPRESETAN ENERGIA AURREZTEKO LEHIAKORTASUN PROGRAMA izeneko egitasmoa landu du eta abian jarri asmo du 2014ko azarotik 2015eko ekainera bitartean.



UROLA KOSTAKO EREMUKO ENPRESETAN ENERGIA AURREZTEKO LEHIAKORTASUN PROGRAMA

OINARRIAK

1. Lan-eskaintza

Hona hemen deialdi honetako lan-eskaintzaren ezaugarriak laburbilduta:

Lanpostuak: energia arloko teknikariak

Eginkizun nagusia:

- Eskualdeko (Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiako) enpresen eta energiaren industriaren balio katearen azterketa egitea.
- Eskualdeko enprekin lan pedagogikoa eta dinamizazio lanak burutzea eta auditoria energetikoak egitea, energia aurrezteko lehiakortasun faktore gisa hartuta.

Lanpostu kopurua: 2 lanpostu. Bietako bat beteko da lanpostuaren zereginekin lotutako lanak egiten esperientzia duen pertsona batekin eta bestea esperientziarik ez duen pertsona batekin. Esperientzia duela iritziko zaio gutxienez 6 hilabeteko esperientzia baldin badu.

Iraupena, lanaldia...:

Iraupena: 7 hilabete (luzapenik gabe), 2014ko azaroaren bigarren hamabostaldian hasita.

Lanaldia: %75eko lanaldia

Lan-harremana: bitarteko funtzionarioa

Lan-hitzarmena: Udal Elkarteko lan-hitzarmena; ordainsariaren maila Udal Elkarteko 14,5a.

2. Parte hartzeko baldintzak

Onartua izan eta hautaketa-prozesuan parte hartzeko ondorengo baldintza hauek bete behar dituzte hautagaiek, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen:

- a) Europar Batasuneko kide diren estatuetako baten herritartasuna izatea edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunei jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea.
Parte hartu ahal izango du, baita ere, Europar Batasuneko kide diren estatuetako herritarren ezkontideak, beti ere zuzenbideko banaketarik gabekoak badira; baita ere bere ondorengoak eta bere ezkontidearenak, baldin eta zuzenbideko banaketarik gabekoak badira, eta ondorengo horiek 21 urte baino gutxiago badituzte edo gehiago izanik bere kontura bizi badira.
- b) 16 urte beterik izatea eta derrigorrezko erretiroa hartzeko adina ez gaintitzea.
- c) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzailer langabe gisa inskribatuta egotea alta egoeran, eskabideak aurkezteko epe-mugan (2014ko urriaren 27an amaituko da epea).
- d) Aia, Getaria, Orio, Zarautz edo Zumaiaren erroldatuta egotea, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidea aurkezteko epe-mugaren aurretik.
- e) Erdi mailako edo goi mailako unibertsitate titulua edo lanbide heziketako erdi edo goi mailako titulua honako ikasketa hauetan:
 - Lanbide Heziketako erdi edo goi mailako zikloa: energia eta uraren familia profesionala (energia arloa) edo eta deitutako lanpostuaren eginkizunekin zerikusi



- eta harreman zuzena dutenak (ikasketa horiek bere barnean izan beharko dituzte energia eraginkortasunaren inguruko edukiak).
- Unibertsitate ikasketak (diploma edo graduak): industria ingeniarietza, energiaren ingeniarietza edo eta deitutako lanpostuaren eginkizunekin zerikusi eta harreman zuzena dutenak (ikasketa horiek bere barnean izan beharko dituzte energia eraginkortasunaren inguruko edukiak).
- f) Hirugarren hizkuntza eskakizunaren titulu edo ziurtagiriaren jabe izatea (edo C1 mailaren baliokidea; ikus baliokidetasunak honako Dekretuan: 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena (azaroaren 15eko EHAA, 219 zk.).
- g) Lanpostuaren eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala izatea. Baldintza hori egiaztatu beharko dute kontratua egiteko proposamena jasotako izangaiek, eskatzen zaien unean.
- h) Diziplina-espediente bidez administrazio publikoen, organo konstituzionalen edo autonomia erkidegoetako organo estatutarioen zerbitzura aritzeko bananduta ez egotea; halaber, epai bidez desgaitze absolutu edo berezirik ez izatea, lanpostu edo kargu publikoan aritzeko, funtzionarioen eskalan sartzeko edo, lan itunpeko langileen kasuan, desgaitutako lanpostuaren antzeko eginkizun edo jarduerak burutzeko. Beste estatu bateko naziotasuna izanez gero, desgaituta edo egoera baliokidean ez egotea; halaber, bere estatuan enplegu publikoa lortzea galarazten dion diziplina zigor edo antzekorik ez izatea.
- i) Administrazioan lan egiteko bestelako bateraezintasun edo ezintasunik ez izatea, dagozkion lege-xedapenek ezarritakoaren argitara.

Esperientzia duten hautagaien zatirik handiena lanpostura aurkezteko, aurrekoek gain ondoko baldintza hau ere bete eta egiaztatu beharko da:

- j) Gutxienez 6 hilabeteko lan-esperientzia izatea oinarri hauen lehen atalean zehaztutako lanpostuen eginkizun nagusiekin zerikusia duten lanpostuetan.

3. Izena non eta nola eman eta epea

Hautaketa prozesuan parte hartzeko honakoak aurkeztu behar dira: eskabidea (I. eranskina), behar bezala beteta, eta oinarri hauen 7. atalean zehazten diren dokumentuak.

Eskabideak aurkeztu behar dira paper euskarrian, honako helbidean: Urola Kostako Udal Elkartea, Sarrera Erregistroa, Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz.


Epea: eskabidea aurkezteko epea amaituko da 2014ko urriaren 27an, 15:00etan. Eskabideak aurkezteko bulego-ordutegia: 8:00-15:00.

Argibideak jasotzeko jarri harremanetan Urola Kostako Udal Elkartearekin: Tel. 943890808, Emaila: idazkaritza@urolakosta.org

4. Onartuen eta baztertuen zerrendak

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, Udal Elkarteak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda emango du argitara, Udal Elkarteko iragarkien taulan eta webgunean (www.urolakosta.org) eta baztertzeko arrazoiak adieraziko ditu.

Baztertutako pertsonak 4 eguneko epea izango dute akats edo okerra zuzentzeko. Jarraian, Udal Elkarteak behin betiko zerrenda emango du argitara.



5. Hautaketa prozesua

Hautaketa prozesuak bi fase izango ditu: merezimenduen balorazioa batetik, eta elkarrizketa bestetik.

5.1. Merezimenduen balorazioa

Udal Elkarteak onartutako hautagai guztiak balioetsiko ditu, aurkeztutako eskabide eta egiaztagirietako datuak kontuan hartuta. Balioespena egiteko irizpide hauek hartuko dira kontuan:

Lan-esperientzia eta prestakuntza		Puntuak gehienez
Lan-esperientzia, lanpostuaren eginkizunekin zerikusia duena.	<ul style="list-style-type: none"> Hilabete oso bakoitzeko 0,50 puntu. 	14
Prestakuntza, lanpostuaren eginkizunekin zerikusia duena.	<ul style="list-style-type: none"> 20 ordu arteko ikastaroak, bakoitzeko 0,5 puntu 	2
	<ul style="list-style-type: none"> 20-150 orduko ikastaroak, bakoitzeko puntu 1 	3
	<ul style="list-style-type: none"> Gradu-ondo, master eta antzekoak, (150 orduetik gorakoak) bakoitzeko 2 puntu 	4
	<ul style="list-style-type: none"> Lanbide Heziketako erdi edo goi mailako ikasketak honako espezialitateetan: energia eraginkortasuna eta eguzki energia termikoa; energia berriztagarriak... 	3
	<ul style="list-style-type: none"> Unibertsitate graduak: energiaren ingeniari-tza gradua; elektrizitate ingeniari-tza gradua; nekazal eta energia ingeniari-tza gradua; energia berriztagarrietan ingeniari-tza gradua... 	4

Oharrak:

Esperientzia duten hautagaientzat gordetako lanpostuaren kasuan, lan-esperientzian baloratuko da parte hartzeko eskatutako hilabete kopurutik aurrera egiaztatutako esperientzia.

Lanpostu batek aurreko irizpide horiekiko zer-nolako antza duen Epaimahaiak aztertu eta erabakiko du, eta egoki irizitako zuzenketa faktoreak aplikatuko ditu, bai hilabete bakoitzeko eman beharreko puntu kopuruari dagokionez, bai lor litekeen gehienezko kopuruari dagokionez.

Atal bakoitzean egiaztatutako ikastaro, gradu ondo, titulu edo baliokideek atal horretarako ezarritako gehienezko muga gainditzen badute, hurrengo atalean balioetsiko dira.

Merezimenduen balorazioan gehienez ere eskuratu ahal izango dira 30 puntu.

Epaimahaiak merezimenduen balorazioaren behin-behineko emaitzak onartu eta argitara emango ditu eta 3 eguneko epea emango du erreklamazioak aurkezteko. Erreklamaziorik ez bada, besterik gabe, behin-behineko emaitzak behin betiko bilakatuko dira. Erreklamaziorik baldin bada, aztertu eta dagokion erabakia hartuko du Epaimahaiak.



Merezimenduak nola egiaztatu

- Ez da balioetsiko eskabidean zehazten ez den eta behar bezala egiaztatzen ez den merezimendurik.
- Lan-esperientzia egiaztatzeko aurkeztu behar dira batetik, bizitza laborala eta, bestetik, enpresako ziurtagiriak. Enpresa-ziurtagiriek argi eta garbi agertu behar dituzte honako datuak: lanpostuaren izena, kontratuaren iraupena eta lanaldia eta burututako eginkizunak. Enpresa-ziurtagiririk izan ezean, lan kontratuaren kopia ere baliokoa izango da, lanpostuaren eginkizunak zehazten baditu.
- Autonomo gisa izandako lan-esperientzia egiaztatzeko honakoak aurkeztuko dira: lan-bizitza, autonomo altaren egiaztagiria, dagokion epigrafearekin, egindako zerbitzuen egiaztagiria (fakturak, enpresa ziurtagiriak...).
- Lan-esperientzia egiaztatzeko aurkeztutako dokumentuek esperientziaren funtzio eta eginkizunak eta epeak ez badituzte argi eta garbi zehazten, Epaimahaiak ez du merezimendu hori baloratuko.
- Prestakuntza egiaztatzeko agiriak argi eta garbi adierazi behar dituzte prestakuntza-ikastaroaren izenburua, edukia eta iraupena. Horrela ez baldin bada, Epaimahaiak ez du merezimendu hori baloratuko.
- Nolanahi ere den, beharrezkoa dela irizten badio, Epaimahaiak aukera izango du lan-esperientzia edo eta prestakuntza egiaztatzeko dokumentu osagarriak eskatzeko edo egiaztapen lanak egiteko.

5.2. Elkarrizketak

Aurreko ataleko balorazioaren arabera zerrenda egingo da eta puntu gehien duten lehen hautagaiei elkarrizketa egingo zaie. Elkarrizketatuko diren hautagaien kopuru zehatza erabakitzeke, puntu kopuru berbera duen multzo osoa aukeratu edo baztertuko da (6 pertsona inguru elkarrizketatuko dira).

Elkarrizketan baloratuko dira lanpostuaren eginkizun eta ardurekin lotutako tasun eta ezaugarriak. Elkarrizketak 20 puntu balioko ditu gehienez. Elkarrizketara aurkeztu ez dena baztertuta geratuko da.

Bi fase horietan lortutako puntuen baturak emango du azken emaitza: merituen balorazioa (lan esperientzia eta prestakuntza) + elkarrizketa.

Nolanahi ere den, Epaimahaiak erabaki ahal izango du elkarrizketara deitutako hautagaiei ariketa praktikoren bat egitea, lanpostuaren eginkizunekin zerikusi zuzena duena. Horrela eginez gero, ariketa horren balorazioa elkarrizketaren puntu kopuruaren barruan balioetsiko da eta, gehienez ere, elkarrizketa-atalaren puntuazioaren %40ko balioa izango du (gehienez 8 puntu).

6. Kontratatzeko proposamena

Balioespenaren eta elkarrizketen emaitzak batu ostean, Epaimahaiak behin-behineko azken emaitzak onartu eta argitara emango ditu eta 3 eguneko epea emango du erreklamazioak aurkezteko. Erreklamaziorik ez bada, besterik gabe, behin-behineko emaitzak behin betiko bilakatuko dira. Erreklamaziorik baldin bada, aztertu eta doakion erabakia hartuko du Epaimahaiak.

Jarraian, Epaimahaiak behin betiko emaitzak eta lehen bi hautagaiak kontratatzeke proposamena egingo dio Udal Elkarteko lehendakariari.



Halaber, gainerako hautagaiekin lan-poltsa eratzeko proposamena egingo dio (puntu gehien dituenetik gutxien dituenera), programak irauten duen bitartean gerta litezkeen hutsuneak betetzeko.

Dena dela, izendapenak egin aurretik, laneratu behar duten hautagaien egoera egiaztatuko da, besteak beste, Lanbiden enplegu eskatzaile langabe gisa izena emanda altan egoteko baldintza. Hautagai batek ez baditu une horretan baldintza horiek betetzen, baztertuta geldituko da eta baldintzak betetzen dituen zerrendako hurrengo izendatuko da.

7. Aurkeztu behar diren dokumentuak

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskaera egiteko honako dokumentuak aurkeztu behar dira:

- Eskabidea (eskabide-ereduaren arabera egina).
- NANren fotokopia.
- Curriculum Vitaea
- Udaleko errolda agiria (gehenez ere hilabete bat lehenagokoa).
- Parte hartzeko eskatzen den ikasketa titulua.
- 3. hizkuntza eskakizuna (edo baliokidea).
- Langabezia egoera ziurtatzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko ziurtagiria
- Lan-esperientzia egiaztatzeko dokumentuak (5.1 oinarriko “Merezimenduak nola egiaztatu” atalean zehaztutako jarraibideen arabera).
- Prestakuntza egiaztatzeko ziurtagiriak (5.1 oinarriko “Merezimenduak nola egiaztatu” atalean zehaztutako jarraibideen arabera).

Aurkeztu behar diren dokumentuek jatorrizkoen kopia konpultsatuak izan behar dute. Nahi izanez gero, kopiak Udal Elkarteko sarrera erregistroan bertan konpultsa daitezke, jatorrizkoa eta kopia aurkeztuta.

8. Epaimahaia

Honela osatuko da Epaimahaia:

Mahaiburua: Udal Elkarteko Prestakuntza eta Enplegu arduraduna

Epaimahaikide:

Udal Elkarteko Orientazio Zerbitzuko teknikari bat

Udal Elkarteko Enprezentzako Zerbitzuen Saileko teknikari bat

Idazkari: Udal Elkarteko Euskara eta Komunikazio Zerbitzuko arduraduna.

Epaimahaiaren eginkizuna izango da hautaketa-prozesua bideratzea, oinarriotan ezarritakoaren arabera: eskabideen balorazioa egitea, elkarrizketak egitea, azken emaitza ematea eta izendatzeko proposamena egitea.

Epaimahaiak ahalmena du oinarri hauek interpretatzeko eta oinarriotan zehaztu gabeko alderdiak erabakitzeke, oinarrietan zehazten denarekin bat etorritik.

Epaimahaiaren eskariz, Epaimahaian parte hartu ahal izango dute Udal Elkarteko nahiz Udal Elkartea osatzen duten udaletako teknikariek, betiere aholkulari gisa eta hautaketa-prozesuko atal eta eginkizun zehatzak burutzeko.



9. Deialdiaren eta hautaketa-prozesuaren inguruko informazioa

Lan-eskaintza iragarriko da bide hauek erabiliz: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua eta Udal Elkartearen webgunea.

Hautaketa-prozesu honen inguruko komunikazio eta jakinarazpenak (onartu eta baztertuen zerrendak, ariketen deialdiak, emaitzak...) Urola Kostako Udal Elkartearen webgunean emango dira argitaratuta: www.urolakosta.org (lan eskaintzak atala).

10. Datu pertsonalen babesa

Izaera Pertsonaleko Datuak Babestekoa den abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak arautzen duena betetzeko, Urola Kostako Udal Elkarteak deialdi honetan arautzen diren laguntza-eskaeren bidez eskuratzen dituen datu pertsonalak jasoko ditu "giza baliabideak" izeneko fitxategian. Fitxategi hori arautzen du Udal Elkarteko Zuzendaritza Batzordearen 2010eko otsailaren 4ko akordioak (Urola Kostako Udal Elkartearen datu pertsonalen fitxategiak arautzeko akordioak).

Datuak laga ahal izango zaizkio Gipuzkoako Foru Aldundiari, oinarri hauek arautzen dituzten kontratazioak egiteko Udal Elkarteak erakunde horren eskutik jasotako diru-laguntza zuritzeko beharrezkoa den neurrian.

Horrez gain, pertsona interesdunek datuak eskuratu, zuzendu, ezeztatu eta haien aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituzte, honako helbidera idatzia bidalita: Urola kostako Udal Elkarte, Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz.



**UROLA KOSTAKO EREMUKO ENPRESETAN ENERGIA
AURREZTEKO LEHIAKORTASUN PROGRAMA**

ESKABIDEA

ESKATZAILEAREN DATUAK

Abizenak	Izena	
NAN	Jaiotza-data	
Helbidea	Herria	
Zein herritan erroldatuta		
Telefonoa	E-maila	

Eskabide hau bete eta aurkeztearekin, eskaera egiten diot Urola Kostako Udal Elkarteko lehendakariari UROLA KOSTAKO EREMUKO ENPRESETAN ENERGIA AURREZTEKO LEHIAKORTASUN PROGRAMA garatzeko **lan-eskaintzaren hautaketa prozesuan parte hartzeko** (espediente zenbakia 2014OLHA0007).

Halaber, hautaketa prozesu hau arautzen duten oinarriak onartzen ditut eta nire lan-esperientzia eta prestakuntzari buruzko datuak ematen ditut, balioesteko.

Baimena ematen diot Urola Kostako Udal Elkarteari (markatu X batez):

<input type="checkbox"/>	Nire datu pertsonalak tratatzeko eta doakion fitxategian txertatzeko
--------------------------	--

<input type="checkbox"/>	Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan behar diren egiaztapenak egiteko.
--------------------------	---

Tokia

Data

Sinadura

Inprimaki honen bidez emandako datuak txertatuko ditugu Urola Kostako Udal Elkartearen titularitateakoa den eta "giza baliabideak" izena duen fitxategi automatizatuan. Fitxategi horren helburua da Udal Elkarteko hautaketa-prozesuak eta giza baliabideak kudeatzea. Fitxategi hori araubideak ezarritako eran inskribatuta dago eta erabiliko da Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege organikoak xedatutakoa kontuan hartuta. Datu-emaileak eskubidea du datu horiek atzitzeko, aldatzeko, ezerezteko eta aurka egiteko. Horretarako, eskaera idatzia bidali behar du honako helbidera: Urola Kostako Udal Elkartea, Urdaneta bidea 6, Zarautz.



LAN-ESPERIENTZIA ETA PRESTAKUNTZA

1. Lan esperientzia			
Enpresa	Lanpostua	Noiztik <u>uuuu</u> / <u>hh</u> / <u>ee</u>	Noiz arte <u>uuuu</u> / <u>hh</u> / <u>ee</u>

2. Prestakuntza		
Ikastaroa	Nork emana	Orduak

Eskabidearekin batera aurkeztu behar diren dokumentuak

- Eskabidea (eskabide-eredu honen arabera egina).
- NANren fotokopia.
- Udaleko errolda agiria (gehienez ere hilabete bat lehenagokoa).
- Parte hartzeko eskatzen den ikasketa titulua.
- 3. hizkuntza eskakizuna (edo baliokidea).
- Langabezia egoera ziurtatzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko ziurtagiria.
- Lan-esperientzia egiaztatzeko dokumentuak (4.1 oinarriko "Merezimenduak nola egiaztatu" atalean zehaztutako jarraibideen arabera).
- Prestakuntza egiaztatzeko ziurtagiriak (4.1 oinarriko "Merezimenduak nola egiaztatu" atalean zehaztutako jarraibideen arabera).